

OLENTZARO, Kallerre, Subilaro ta Iragarle (1)

Olentzaro eta honen antzeko izenak Gipuzkoako itxasaldean, Beterrin eta Naparroko iparraldean aski ezagunak dire.

Olentzaro, batez ere, Orexan, Lesakan eta Arakilen darabilkiten izena degu. *Olentzero* berriz Beran, Irunen, Oyartzunen eta Donostin. *Orentzago*, Zarautzen. *Orentzaro*, Beran. *Onentzaro*, Lizartzan. *Orantzaro*, Andoainen. *Onontzaro*, Berastegin eta Larraunen.

Izen honen mamia eta beragana bildu diren esaunda eta oikundeak ordea, naizta beste izen batzuen gerizpean, askoz urrunago edatuak dabilta.

Mami eta esanai horren erroak berak ere Gabonetako esaunda eta sinismenetan ager zaizkigula dirudi: emengoetan eta erbestekoetan.

Esaunda hoiek Euskalerrian zear toki askotan ikasi ditugu.

Bat bederen Aralarren ikasia det. Ango artzaiai entzuna. Ba-dire ia irurogei urte. Geroztik ordea esaunda bera Euskalerriko toki askotan entzun izan det.

Aralarren ba-da *Martxabaleta* izeneko gaintxo zelai bat. Ikusbira ederra aurrean Gipuzko-alderuntz. An aspaldi, jai-arratsalde batez, jentillak dantzan zebiltzelarik, laiño argi bat ostrian sortaldetik zetorkiela ikusi omen zuten. Ba-omen zan beren txabolan jentil zaar bat ostri eta izarren berri zekiena. Atera omen zuten zelaira eta laiño argiari begida jarri.

(1) 1973go Abenduaren 19n Tolosa'ko «Txinparta» Elkartean egindako itzaldia. Vid. el mismo tema en el tomo III, pág. 467.

Orduan zaararak auxen esan omen zien: "Nere umeok! *Kixmi* jaio dek eta gureak egin dik, gure azkazia galdua dek; ez deat geiago bizi nai eta or, mailloan beera, amil nazazute" (Jentillek *Kixmi* deitzen omen zioten Kristo'ri). Amildu omen zuten beren jakintsu zaarra eta an, malkarrean, hil omen zan doakabea. Ondoren besteak, lañoagandik iges, sartalderuntz lasterka zijoatzela, itxumustuan *Arraztarango* armuran eta bere arrestalki aundiaren azpian sartu omen ziren. An dago oraindik aien illobia, *Jentillarri*, Aralargo trikuarri edo dolmenetako bat. Batebatek orratio iges egin zuen jentil aienartetik eta ibarretara jetxi, *Kristo* jaio zala oiuegiñaz. Ara or Aralar'ko oyularia.

Oraindi ere erri askotan Gabongabaz agertzen omen da —diotenez— berri ori emanaz.

Segurako esaundak digunez berriz, *Aretza-mendi* inguruko jentillak ikusi omen zuten *Kixmiren* edo *Kristoren* ezaugarri bezala agertu zan laño argi hura, eta bereala ondoko trikuarri aundi batean —*Balenkalekun*— sartu omen ziren: an omen daude ehortziak (2). Guztiak ez ordea. Bat bederen mendiak beera jetxi omen zan *Kixmiren* jaiotza adieraziaz. Ara or Goierriko Olentzaro eta Aretzako Iragarle, naizta izen hoiek ez dire esaundan ageri.

Betherrin eta inguruko herri batzuetan (Oyartzunen, Irunen, Beran), *Olentzaro* Gabongabea menditik, Jesus jaio dala adieraztera, datorren gizakia da: artzaia bere eginbidez Aralarpean; nekazaria, ote-sorta Bizkarrean eta igitaia eskuan daramazkiena, Berastegin, Larraunen, Leitzan, Lesakan, Arakilen; ikazkiña, Oyartzunen, Donostiin eta Elduainen.

Ona emen zer abesten duten Oyartzungo gazteak:

"Olentzero juantzaigu
mendirala lanera
intentziyuarekin
ikatz egitera;
adittu duanean
Jesus jaio dela
lasterka etorri da
parte ematera".

Olentzaro degu, dirudienez, Aralarren, Ataunen, Seguran, Idiazabalén, Zerain, Urdiainen, Ernanin, Aranón, Orozkon, e. a. entzun ditugun esaundetan ageri zaigun jentilla edo mairua —*Kristoren* iragarlea, alegia—: emen lenengo izan degun izperkaria edo "periodista" eta Euskalerrian lenengo misiolaria.

* * *

(2) Beste toki batzuetan digutenez, lañoa ikusi zuten, e. a. jentillak harpeetan betiko saru omen ziren (Ataun, Ernani, e. a.).

Izen horren babesean, edota berari itsasirik, datorzkigu beste esaunda eta oikunde batzuek ere. Ona emen:

1) Itz orregaz urte-garai bat —Gabon eta bere ingurua— izentatzen degu. Esanai au ez da gaurkoa: Isasti lezoararak, amazapigarren mendean zionez, *Onenzaro* deitzen omen zioten eskualde artan Gabongabari (3).

2) Gabonetan —diotenez— agertu oi dan gizon begigorri, jale eta edale neurrigabea (*Zarautzen*, *Oyartzunen* eta *Lizartzan*); kezulotik sartuta sutondoan, edo Olentzero-enborraren egalean, edota bere ote sutuaren alboan (Berastegin eta Oyartzunen diotenez) bere soina berotuaz egoten dana; kezuloak garbi ez ba-dire, etxeokak zigortzen dituana (Elduainen).

3) Gizaki onen lastozko iduria, Arakilen, Leitzan, Lesakan, Oyartzunen eta Larraunen erabili oi dutena, eta azkenik (Lesakan) suaz erretzen dutena: aro edo urte-garaia alegia, gizakiz jantzia.

* * *

Garaiz, egitez eta tankeraz gizaki-antzeko urte-aro orren aideak dire Arabako *Putierre*, Amaritan, Garayoan, Gazeon, eta Onraitan Gabon-zarrez erre oi duten zagia —iragan den urtearen iduria—; Agurainen eta Alegrian erretzen duten *Gallerre* eta Ganbo-Ullibarriko eta Argomanizgo *Kalorre*.

Gabonetan eta Gabonzarretan herri batzuetan erabili oi dituzten giza-iduriak —urtearen azken garaienak edo Olentzaroenak— orditatzat, sabelkoitatzat eta gaiztotatzat artu eta salatzea eta, azkenik, erretzea, urtegarai guztien iduriakin egin oi den jokua da. Iragan den aroa eta urtea etzaizkigu sekulan guk nai degun neurrian atsegingarri izaten.

Garai ortako suak eta erreketak erbesteko sinismen, ipui eta oikundeekin ba-dute zerrikusi, batez ere indoeuropatarrekin. Indiako gogai eta esaunden arabera, urte-garai onen gertaera nagusiak argiaren pizkundera eta suaren eta eguzkiaren sortzea edo itzulketa ziren, geien edatuak beintzat.

* * *

Gabonetako suak eta Gabonzuzia elkarregaz dijoatz.

Gabonzuzia Gabongabaz Euskalerriko etxe askotan sutan jarri oi duten sunbilla da. Ona emen bere izen batzuek:

Olentzero-enborra, Oyartzunen;
Onontzaro-mokorra, Larraunen;
Gabonsubil, Anzuolan eta Abadiñon;
Gabon-mukur, Bedian;

(3) *Compendio historial de la muy noble y muy leal prov.ª de Guip.ª* (San Sebastián, 1889).

Gabon-zuzi, Zegaman;
Gabon, Trespuentesen;
Porrondoko, Agurainen;
Subilaro-egurra, Aezkoan;
Suklaro-egurra, Saraitzun;
Sukubela, Liginagan;
Tuki, Urraul'en.

Ezkirozen eta Elkanon iru sunbil jartzen dituzte: bat Jainkoari, bestea Andre Mariari eta irugarrena etxekoai. Erason era Arakilen gañera etxeko laguneri sunbil bana jarri oi diete eta eskekoai beste bat. Beroi egiten dute Ultzurrunen eta Izalen.

Trespentesen jartzen zuten sunbilla idi-uztarde batek sartzen omen zuen sukaldean eta, urte guztian, bertan irauten omen zuan. Larraunen jartzen zutena Gabon-egunean eta Gabon-gabea sutan egoten zan; Llo-diokoa eta Aguraingoa, berriz, Urtezar edo Gabonzar arte; Arratiakoa, Otxan-diokoa eta Zaraitzuko, Gabon-gabea bakarrik; Urraulen beren *Tuki* suturik edukitzen dute Erregenak arte.

Olaetan, Urtezar-gabea pago-sunbil bat pizten dute eta bere ondoan erretzen dute aurreko Urtezarrez piztu zutena.

* * *

Sunbil horrek, gabon-gabaz edo Urtezarrez sutan egon dalako edo, indar berezia duela askok uste dute. Oyartzunen bere sutan aiparia egiten edo eratzen dute. Antzuolan eta Abadiñon ere berdin; gainera, apalondoan, etxeko danak bere inguruan berotzen egon oi dire.

Elduainen, Gabongabaz, su aundia egiten dute sukaldean; bestela Olentzaro, igitai bat eskuan, kezulotik beera jexten dala eta etxekoak iltzen dituala: ala diote.

Ultzurrunen sunbillak *Salanton* arte irauten zuen eta Salantonetan bere kez etxeko abereak lurrintzen zituzten:

Ezkirozen Jainkoarentzat Gabon-gabaz piztutako sunbilla, etxeko atalarrian jartzen dute Urteberriz, edo bestela Salanton-egunez; eta bere gaineratik etxeko abereai ibillerazi, ustez-eta, horren bidez, urte artan abereak ez direla ezbearrez hilko. Oitura bera zuten lenago Oyartzunen eta Arakilen ere.

Agurainen sunbil horrek ekaitz gaiztoak aldentzeko indarra duela-ta, odei aserre bat alderatzen dalarik, berriro sutan jartzen dute.

Otxandion eta Arratian, zezena duten etxeetako oitura bat haxe da: egur bi jartzen dituzte sutan Gabon-gabeko apalgarai; mutur banatatik erretzen dituzte zerbait; gero bietan luzeenari bere mutur erre pitza eta

beste egurra pitzaturan zearka sartu; eta gurutze hori zezenaren ikulluan jarri. Zezenak ez omen du *maminpartidu* dalazko gaitzik urte guztian izango.

Erronkarin, gaberdiko meza-aurretik, karriketan suak egin oi zituzten.

Aezkoan sunbilla edo bere txingarrak gordetzen dituzte. Bei bati erra-pea gogortzen ba-zaio, haien suak ematen duan kez lurrintzen diote.

Olaetan Urtezarrez, apalondoan, sunbilla sutatik ikullura eramaten dute eta bertan utzi; abereetatik gaitzak aldendu ditzan.

Amorebietan uste dutenez, erbiñudeak ez die etxekoai kalterik egiten ezta beren abereai ere, baldin Gabonetan sunbilla pizten ba-dute. Ez diote suari hiltzera uzten gau ortan; bestela etxekoen bat urte-barruan hilko ote dan bildur baitire.

Gabon-mukurra edo bere ikatza etxean gordetzeko oitura dute Bedian: berak etxea bedeinkatzen omen du-ta.

Liginagan Gabon-sunbillak ardiai ume-uraxeak sorrerazten diela uste dute.

Ibarrurin Gabon-gabaz sutondoan egiten dan autsa Doneztoan-egunean soroetara eramaten dute eta lurrean gurutzetara zabaldu, pixtiak akabatu ditzan.

Erason, bat hiltzeh delarik, bere Gabon-sunbilla ondoan lagun jartzen diote.

* * *

Beraz Olentzaro-enborraren ezaguera edo esanaia Olentzaroren izena baño askoz geiago edatua dago Euskalerrian.

Olentzaro ez da toki askotan aipa oi duten itza; baina berari itsasirik dabilzan zenbait sinismen eta oikunde (ez guztiak) nun-nahi ba-dire, nahiz Euskalerrian eta nahiz erbestean, batikbait indoeuropatarren herrialdeetan.

Marseillan *Calendau* deitzen diote egur oni; Dauphinen, *Chalendal*; Franciako herri askotan, *Bûche de Noël*. Alemanian, Jakob Grimm'ek dienez, *Weihnachtsfeuer* edo gabon-sua eta gabon-sunbilla aspalditik ezagunak dire. Britaniaundian, Gabongabaz sutan jartzen duten sunbillari *Yuloclog* deitu oi diote, eta bere zati bat gorde, urrengo urteko Gabonsunbilla pizteko. Eskandinabian, Britani-aundian bezelatsu, egin oi zuten. Letondarrak *Bluku-wkars* "gabon-sunbil" izenagaz ezagutzen dute Gabon-gaba. Yugoslabian *Badnjak* izeneko aritz-sunbilla erretzen dute Gabon-gabaz. Indoeuropatarak beren sinismen eta esaundak oikunde hoi bidez adierazten dizkigute: Eguzkia udazkenean itzalera juana, orain Gabon-gabaz itzultzen asi beharra dela; ba-datorkigula; argia berriro eldu zaigula, e.a.

* * *

Gure herri batzuetan —Bizkaian, Gipuzkoa'ko eta Araba'ko zenbait auzunetan— ba-da Gabon-gabaz apalurrean ogiari gurutze bat egin eta

ondoren kentzen zaion lenengo zatia urrengo Gabonak arte gordetzeko oikundea. Ogi hori ez dala luzintzen uste dute eta abereai amorrua sendatzen diela, baita itxaso aserreari eta ibaiaren uranbil aundiei ere. Hau ere Europan zear toki askotan ageri dan oikundea da (4).

* * *

Urte-garai ontan —Gabonzarrez, urteberria asten den unean— urak ba-omen du indar berezia. Orregaitik herri batzuetan —Naparroan, batez ere— artzen dute iturrian eta etxera ekartzen, ustez-eta berarekin osasuna eta bakea eldu direla. Oikunde au ere ekainburuko suakin, zuziakin eta gabon-ogiakin batera toki askotan dabilena degu, eta Europako beste toki askotan ezaguna (5).

* * *

Ara or urtearen azken-garaiko edo Olentzaro-inguruko sinismen, esaunda eta oikunde batzuek. Bost sailetan sakabanatuak ordea.

Lenen: *Olentzaro* oiulari edo iragarleari itsasirik datorzkigunak eta Euskalerriko jenthilarri edo trikuari eta harpe batzuei loturik dabiltzanak: hauet dirudienez, jatorrenak.

Bigarren: *Olentzaro* urte-garaiari eta bere giza-iduriari itzasirik dabiltzanak. Hauek erbestetik eldu zaizkigunak.

Irugarren: *Olentzaro-enborrari* bildurik dabiltzan esaunda eta oikundeak: indoeuropatarren erligioan esoinduak.

Laugarren: *Gabongabeko* opal-ogia, bere esanaia eta indarra, amorruak sendatzeko.

Bostgarren: *Gabonzarretako* ur-berria, bakea eta osasuna izateko.

* * *

Esaunda-sail auen ariak urrundik —tokiz eta mendez— eldu zaizkigu noski. Azkeneko lau sail oienak indoeuropatar ezikeran, beren sineste eta jokabidean batikbait, aski garbi ageri dire (6).

Lenengo sailean aipa diran esaunda eta egintzak, dirudienez, bertako leen-ezikeraz kutsatuak.

(4) Arnold van Gennep: *Le Folklore des Hautes-Alpes*, t. I, p. 256 (Paris, 1946).

(5) Arnold van Gennep: *op. cit.*, p. 267.

(6) Vid. *Wörterbuch der Mythologie* (Stuttgart, 1969).